



## UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEAREN BATZAR NAGUSIA. 2024KO MARTXOAREN 21EKO EZ-OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA.

### Honako batzarkide hauek bertaratu dira:

#### Azkoitiko ordezkariak

Ana Azkoitia Urteaga ..... (% 11,91)  
Asier Altuna ..... (% 11,91)  
Jose Joakin Etxaniz..... (% 11,90)

#### Azpeitiko ordezkariak

Joanes Amenabar Altuna ..... (% 15,53)  
Nagore Alkorta Elorza ..... (% 15,53)  
Jabier Altuna Larrañaga ..... (% 15,53)

#### Beizamako ordezkariak

Aitor Arruti Arranz ..... (% 0,14)  
Unai Barrutibengoa Olazabal..... (% 0,14)

#### Bidania-Goiatzeko ordezkaria

Juan Ignacio Zinkunegi Urdapilleta..... (% 0,54)  
Josune Landa Gurrutxaga ..... (% 0,54)

#### Errezilgo ordezkariak

Luis Maria Arzallus Amenabar ..... (% 0,58)  
Joseba Iñaki Labaka Beristain ..... (% 0,58)

#### Zestoako ordezkariak

Mikel Arregi Urrutia ..... (% 3,85)  
Zigor Plazaola Anduaga..... (% 3,84)

#### Idazkari kontu-hartzailea

Ander Cestona Unanue

#### Ingurugiro Etxea Fundazioaren zuzendaria

Orkatz Goenaga Ormazabal

#### Aholkulari juridikoa

Alejandro Castro Ubetagoyena.

### Ez dira etorri honako batzarkide hauek:

#### Aizarnazabalgo ordezkaria

Mari Karmen Arregi Agirre ..... (% 0,80)  
Unai Alberdi Arakistain ..... (% 0,79)  
Ana Isabel Lizarralde Ibar..... (% 0,79)

#### Beizamako ordezkaria

Eneko Oregi Ziurraga..... (% 0,14)

#### Bidania-Goiatzeko ordezkaria

Jose Miguel Mendizabal Arnaez ..... (% 0,54)

#### Errezilgo ordezkariak

Nekane Zinkunegi Barandiaran..... (% 0,58)

#### Zestoako ordezkariak

Garikoitz Mendizabal Etxeberria..... (% 3,84)

2024ko martxoaren 21ean, arratsaldeko 18:05etan, Urola Erdiko Mankomunitateko aretoan, Plaza Nagusia, 11-1, Urola Erdiko Mankomunitatearen Batzar Nagusiaren ohiko osoko bilkura bildu da.

Aizarnazabal, Azkoitia, Azpeitia, Bidania-Goiatz, Errezil eta Zestoako udalerriek osatzen dute Mankomunitatea, eta bertaratu diren ordezkariak toki-erakundearen % 92,52a ordezkatzan dute. Mankomunitatearen estatutuen 10.6 artikulua honako hiru betekizun hauek ezartzen ditu Batzar Nagusiaren lehenengo deialdia baliozkoa izateko:

- 1) Batzarkideen erdia gehi bat egotea.
- 2) Batzarkideen botoen erdia gehi bat ere izatea.
- 3) Mankomunitatean ordezkariak dituzten udalen erdia gehi bat egotea ere.

Hiru baldintza horiek lehenengo deialdian bete dira.



Lehendakariak, legezko kopuru nahikoa dagoela ikusita % 92,52ko quoruma zegoela egiaztatu ondoren), eta sei udalerriko ordezkariak bertaratu direla adierazi eta gero, Batzar Nagusiko bilkurari hasiera eman dio. Jarraian, batzarkideek deialdiaren gai-zerrendan jasota dauden gaiak jorratu dituzte.

### **1. 2023ko azaroaren 2ko Batzar Nagusiko ohiko osoko bilkuraren akta onartzea.**

Inork besterik adierazi ez duenez, botazioa egin ondoren bertaratutakoek gehiengoz onartu dute 2023ko azaroaren 2ko Batzar Nagusiko ohiko osoko bilkuraren akta, Urola Erdiko Mankomunitatearen boto haztatuaren 80,62ko portzentajeaz.

### **2. 2023ko abenduaren 22ko Batzar Nagusiko ez-ohiko osoko bilkuraren akta onartzea.**

Inork besterik adierazi ez duenez, botazioa egin ondoren bertaratutakoek gehiengoz onartu dute 2023ko abenduaren 22ko Batzar Nagusiko ez-ohiko osoko bilkuraren akta, Urola Erdiko Mankomunitatearen boto haztatuaren 91,4ko portzentajeaz.

### **3. Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariaren proposamena onestea, hala badagokio, Urola Erdiko Mankomunitateko langileei eta Urola Erdiko Lapatx Zaborteia S.A.ren langileei ezarri beharreko ordainsarien igoerari buruzkoa.**

**Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariaren proposamena, Urola Erdiko Mankomunitateko langileei eta Urola Erdiko Lapatx Zaborteia S.A.ren langileei %0,5eko ordainsari-igoera osagarria, 2023.01.01eko ondorioekin**

## **IKUSIRIK**

Urte bakoitzerako Estatuko aurrekontu orokorren legeak ezartzen du urtero toki-korporazioetako soldatek edo langile-gastuek izan dezaketen igoeraren muga. Ildo horretan, Enplegu Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen Testu Bateginaren 21. artikulua (urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartua) xedatzen du ezingo dela adostu urtero Estatuko Aurrekontu Orokorren Legeak langile gastuetarako ezarritako mugak baino soldata-masaren igoera handiagoa.

2023ko ekitaldirako, Estatuko Aurrekontu Orokorreari buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legeak, 19. bi.1 artikuluan, sektore publikoaren zerbitzupeko langileen ordainsariaren %2,5eko igoera aurreikusi zuen, 2022ko abenduaren 31an indarrean zeudenekiko, homogeneotasunari dagokionez.

Urola Erdiko Mankomunitateko Batzar Nagusiak, bi mila eta hogeitahiruko martxoaren hogeita hamaikan egindako bileran, 2022ko abenduaren 31an indarrean zeudenekin alderatuta, Urola Erdiko Mankomunitateko langileei eta Urola Erdiko Lapatx Zaborteia S.A.ren langileei %2,5eko ordainsari-igoera orokorra aho batez onartu zuen.



Joan den irailaren 28an, Estatistikako Institutu Nazionalak Kontsumoko Prezioen Indize Harmonizatua 2023ko iraileko datu aurreratua argitaratu zuen, %3,2koa. Datu horri 2022ko ekitaldiko urteko KPI harmonizatua gehituta, %5,5koa, % 6tik gorako batura ateratzen da, eta baldintza hori Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 31/2022 Legearen 19. Bi artikuluan jasotzen da, ordainsarien % 0,5eko gehieneko igoera gehigarria egiteko, 2023-01-01eko ondorioekin. Ildo horretan, eta legeak berak jasotzen duen bezala, Ministro Kontseiluak, 2023ko urriaren 3an egindako bilkuran, gehikuntza hori aplikatzea erabaki du (2023.10. 5 BOE).

Urola Erdiko Mankomunitatearen Batzar Nagusiak, 2023ko azaroaren 2an egindako bileran, besteak beste, erabaki zuen 2023ko urtarrilaren 1eko eraginarekin Urola Erdiko Mankomunitateko eta Urola Erdiko Lapatz Zaborteia S.A.aren langileen ordainsarien %0,5eko igoera gehigarria onartzea, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta.

Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko 31/2022 Legearen 19 Bi 2 b) artikulua honako hau xedatzen du:

*"2. Halaber, hala badagokio, 2022ko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsariei dagokienez, honako igoera hauek aplikatuko dira, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, bi kasuetan:*

(...)

*b) Barne Produktu Gordin (BPG) nominalak 2023an izandako bilakaerari lotutako gehikuntza.*

*BPG nominalaren igoerak Gobernuak aurrekontuen lege hau egitearekin batera aurkeztutako koadro makroekonomikoan zenbatetsitakoa berdindu edo gaindituko balu, ehuneko 0,5eko ordainsari-igoera osagarria aplikatuko da.*

*Ondorio horietarako, Estatistikako Institutu Nazionalak 2023ko BPGren aurrerapen-datuak argitaratu ondoren, gehikuntza hori aplikatzea onartuko da Ministroen Kontseiluaren erabaki baten bidez. Erabaki hori BOEn argitaratuko da".*

*Agindu horretan xedatutakoaren arabera, 2024/01/30ean, Estatistikako Institutu Nazionalak Barne Produktu Gordin (BPG) nominalaren bilakaeraren 2023ko datua argitaratu zuen, lege horretako 19. Bi 2 b) artikuluan jasotakoa bete zelaririk, hau da, % 0,5eko ordainsari-igoera osagarria izateko nahitaezko baldintza, 2023.01.1etik aurrera"*

Era berean, eta Legeak berak bere artikuluetan jasotzen duen bezala, Ministroen Kontseiluak, 2024ko otsailaren 6an egindako bilkuran, gehikuntza osagarri hori aplikatzea erabaki zuen, eta erabaki hori Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen (BOE 2024/02/08).

## KONTUTAN HARTURIK

I. Abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19. Bi. 2.b) artikulua.

II. Eskumenari dagokionez, apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen) 22. artikulua Batzar Nagusiaren gain utzi du herri-langileen ordainsari osagarrien onartzea.



Hori dela eta,

### **PROPOSATZEN DET**

**Lehena.-** 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19. Bi 2.b) artikuluan aurreikusitako sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien % 0,5eko igoera osagarria onartzea. Igoera hori aplikatuko zaie 2022ko abenduaren 31ra arte indarrean zeuden ordainsariei eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Modu honetan, igoera honi urte hasierako %2,5eko igoera eta %0,5eko igoera gehigarriari batuta 2023. ekitaldian %3,5eko soldata igoera orokorra kontsolidatzea ekarriko du.

**Bigarrena.-** Akordioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

*UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIAK*  
**Joanes Amenabar Altuna**

**Gaia bozkatu ondoren, honakoa izan da emaitza:**

**Alde: % 92,52**

Azkoitiko ordezkariak (%35,72): Ana Azkoitia Urteaga A. (% 11,91), Asier Altuna J. (% 11,91) Jose Joakin Etxaniz J. (% 11,90).

Azpeitiko ordezkariak (%46,59): Joanes Amenabar Altuna J. den Lehendakaria (%15,53), Nagore Alkorta Elorza A. (% 15,53), Jabier Altuna Larrañaga J. (% 15,53).

Beizamako ordezkariak (% 0,28): Aitor Arruti Arranz J. (% 0,14), Unai Barrutibengoa Olazabal J. (% 0,14).

Bidania Goiatzeko ordezkariak (%1,08): Juan Ignacio Zinkunegi Urdapilleta J. (%0,54) Josune Landa Gurrutxaga A. (% 0,54).

Errezilgo ordezkariak (%1,16): Luis Maria Arzallus Amenabar J. (% 0,58), Joseba Iñaki Labaka Beristain J. (% 58).

Zestoako ordezkariak (% 7,69): Mikel Arregi Urrutia J. (% 3,85), Zigor Plazaola Anduaga J. (% 3,84).

**Kontra: % 00,00**

**Abstentzioa: % 00,00**



## **Bertaratutakoek, aho batez, honakoa onartu dute:**

**Lehena.-** 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen 19. Bi 2.b) artikuluan aurreikusitako sektore publikoaren zerbitzuko langileen ordainsarien % 0,5eko igoera osagarria onartzea. Igoera hori aplikatuko zaie 2022ko abenduaren 31ra arte indarrean zeuden ordainsariei eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Modu honetan, igoera honi urte hasierako %2,5eko igoera eta %0,5eko igoera gehigarriari batuta 2023. ekitaldian %3,5eko soldata igoera orokorra kontsolidatzea ekarriko du.

**Bigarrena.-** Akordioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

## **4. Urola Erdiko Mankomunitateko lehendakariaren proposamena 2024ko kontratuen plana onartzeko.**

**Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariaren Ebazpena, Urola Erdiko Mankomunitateko 2024ko kontratazio plangintza onartzekoa.**

### **LEHENA.- AURREKARIAK.**

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuenak (hemendik aurrera, SPKL) sektore publikoko erakunde guztiak behartzen ditu urteko kontratuzko jarduera planifikatzera eta argitaratzera, behintzat harmonizatua den prozedurari lotuta dauden kontratueterako.

Horrenbestez, SPKLren 28.4 artikulua ezartzen du sektore publikoko erakundeek programatuko dutela kontratazio publikoko jarduera, aurrekontu ekitaldi batean edo urte anitzeko aldi batean garatuko dutena, eta aldez aurretik jakinaraziko dutela kontratazio-plan hori, SPKLren 134. artikuluan aurreikusitako aldez aurreko informazio-iragarki baten bidez, gutxienez SARA kontratuak jasoko dituen. Azken kontratu horiek SPKLren 19. Artikulutik 23. artikulura bitartean definitzen dira.

Horrela, Kontratazio Plan hori onartzeak eta, ondoren, Mankomunitatearen kontratatzailearen profilean argitaratzeak aukera ematen du, batetik, lizitatzzaileen eta, bereziki, enpresa txikien eta ertainen (ETEak) parte hartzea errazteko Mankomunitateak egiten dituen kontratazio-prozeduretan. Gainera, gardentasuna indartzeko mekanismo bat da, aurretiko informazio horren bidez, lehia sustatzen duelako. Kontratatzailearen profila "Kontratazio Publikoa Euskadin" plataforman dago ([www.contratacion.euskadi.eus](http://www.contratacion.euskadi.eus) estekan eskuragarri dago).

Bestetik, kontratazio-organoei aukera ematen die kontratuzko jarduera ondo planifikatzeko eta aldez aurretik ematen diren premiazko epeak direla-eta presazko tramitazioak saihesteko.

Urteko Kontratazio Planak kontratuen zerrenda bat du, oinarrizko datuak barne (xedea, prezioa, iraupena eta aurreikusitako lizitazio-data), enpresek kontratazio-planen berri aldez aurretik izan dezaten, deialdiari adi egon daitezten eta eskaintzak egiteko planifikatzen joan daitezten.



Plan adierazgarria da, eta ez du kontratu guztiak lizitatzera edo azaldutako baldintza zehatzetan horiek egitera behartzen.

SPKLren 134. artikuluan aurreikusten den aurretiko informazio-iragarkia harmonizatua den prozedurari lotuta dauden kontratuetara mugatzen da, eskaintzak aurkezteko epeak murriztea komenigarritzat jotzen denean.

Arau harmonizatupeko kontratuak dira:

1. 5.350.000 euroko edo gehiagoko balio zenbatetsia duten obra-kontratuak, obra emakidako kontratuak eta zerbitzu-emakidako kontratuak.
2. 215.000 euroko edo gehiagoko balio zenbatetsia duten hornidura-kontratuak eta zerbitzu-kontratuak (750.000 euro IV. eranskineko zerbitzu-kontratuetan).
3. 23. artikuluan aurreikusitako diruz- lagundutako kontratuak.

#### **BIGARRENA.- ARAUDI APLIKAGARRIA.**

Ikusirik Mankomunitateko zerbitzuek landutako plan proposamena.

Ezari beharreko aipatutako legediaren arabera erabakia Lehendakariari dagokio. (7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena, 21.1.s artikulua)

Horrenbestez, Lehendakariak hau

#### **ERABAKI DU**

Lehenengoa- 2024ko Kontratuen Plana onartzea, Eranskin gisa ageri dena.

Bigarrena.- 2024ko Kontratuen Plana kontratatzailearen profileen argitaratzea erregulazio harmonizatuko kontratuak, eta Europar Batasunaren Egunkari ofizialean.

Hirugarrena.- Hurrengo Urola Erdiko Mankomunitateko batzar nagusietan ebazpen hau berresteko aurkeztea.

Laugarrena.- Kontratazio plangintza honen betetze mailari buruzko txostena aurkeztea 2025ko apirilaren 30 baino lehen.

Azpeitian, 2024ko martxoaren 15a.

Joanes Amenabar Altuna  
Urola Erdiko Mankomunitateko lehendakaria



**Gaia bozkatu ondoren, honakoa izan da emaitza:**

**Alde: % 92,52**

Azkoitiko ordezkariak (%35,72): Ana Azkoitia Urteaga A. (% 11,91), Asier Altuna J. (% 11,91) Jose Joakin Etxaniz J. (% 11,90).

Azpeitiko ordezkariak (%46,59): Joanes Amenabar Altuna J. den Lehendakaria (%15,53), Nagore Alkorta Elorza A. (% 15,53), Jabier Altuna Larrañaga J. (% 15,53).

Beizamako ordezkariak (% 0,28): Aitor Arruti Arranz J. (% 0,14), Unai Barrutibengoa Olazabal J. (% 0,14).

Bidania Goiatzeko ordezkariak (%1,08): Juan Ignacio Zinkunegi Urdapilleta J. (%0,54) Josune Landa Gurrutxaga A. (% 0,54).

Errezilgo ordezkariak (%1,16): Luis Maria Arzallus Amenabar J. (% 0,58), Joseba Iñaki Labaka Beristain J. (% 58).

Zestoako ordezkariak (% 7,69): Mikel Arregi Urrutia J. (% 3,85), Zigor Plazaola Anduaga J. (% 3,84).

**Kontra: % 00,00**

**Abstentzioa: % 00,00**

**Bertaratutakoek, aho batez, honakoa onartu dute:**

**LEHENENGOA.-** 2024ko Kontratuen Plana onartzea, Eranskin gisa ageri dena.

**BIGARRENA.-** 2024ko Kontratuen Plana kontratatzailearen profilean argitaratzea erregulazio harmonizatuko kontratuak, eta Europar Batasunaren Egunkari ofizialean.

**HIRUGARRENA.-** Kontratazio plangintza honen betetze mailari buruzko txostena aurkeztea 2025ko apirilaren 30 baino lehen.

**5. Mankomunitatea osatzen duten herrietan (Aizarnazabal, Azpeitia eta Zestoa izan ezik) hiri hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzu publikoaren kudeatzeko kontratuaren 8. Aldaketa.**

**UROLA ERDIKO ZERBITZU MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIAREN PROPOSAMENA, Mankomunitatea osatzen duten herrietan (Azpeitia izan ezik) hiri hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzu publikoaren kudeatzeko kontratuaren 8. aldaketaren espedientea onartzekoa**



**Unitate sustatzailea:** Lehendakaritza: Mankomunitateko Zerbitzuak Unitatea.

**Kontratu mota:** Zerbitzuen kudeaketa, azaroak 14ko Sektore Publikoko Kontratuen Testu Bateratua onartzen duen 3/2011 Errege Dekretu Legegilearen 8. artikuluan xedaturikoa.

**Kontratuaren xedea:** Mankomunitatea osatzen duten herrietan (Azpeitia izan ezik) hiri hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzu publikoaren kudeaketa.

**Esleipen data:** 2009/01/02ko Dekretua berretsi zuen U.E Batzar Nagusiak 2009/01/19an.

**Formalizazioa:** 2009/01/02an

**Epea:** 10 urte, luzagarri urtero, zerbitzuak , gehienez, 25 urteko iraupena izan arte.

**Prezioa:** 745,629,96 € urtero BEZarik gabe; 797.824,07 € (urtero), BEZa barne.

**Bermea:** 37.281,50 €

**Baldintza bereziak:** Zestoako eta Aizarnazabal; kontratazio-baldintzek, gehienez, 2011ko abenduaren 31a bitartean iraungo dute. Epe honen barruan, udal bakoitzak, erabaki ahal izango du:

1. Beste bilketa sistema bat aukeratzea, kontratuaren eremuaren barruan.
2. Kontratu hau arautzen duten preskripzio teknikoek jasotakoarekin jarraitzea.
3. Kontratuaren indarraldia amaitutzat ematea, inolako kontraprestazio ekonomikorik gabe enpresa kontratistarentzat.

#### **Kontratuaren aldaketak:**

**1. aldaketa:** 2011/06/11n. Zerbitzuen gehikuntza aurreikusten da, Urola Erdiko Mankomunitateko udalerrri guztietan (baita Azpeitian ere) materia organiko ustelgarriaren edo biohondakina deritzon zatiaren bilketa eta garraioa sartzeko. Kontratuaren prezioan 60.000 € gehiago urtero.

**2. aldaketa:** Hasierako ebazpena: 2011/12/22 eta betiko ebazpena: 2012/03/19. Kontratuaren prezio berria 670.683,90 €, BEZa aparte eta Aizarnazabal eta Zestoako udalerrien kasuan kontratuaren esleipenaren baldintzak beste urtebetez luzatzekoa, aurreko atalean aipaturiko murrizketak barne direlarik. Aldaketa horrek (prezioan eta ehunekoan) ez zuen kontuan hartzen aurreneko aldaketa.

**3. aldaketa:** 2012/12/19: Zestoa eta Aizarnazabalgo udalerriei kontratua era honetan 2013. Urtean aplikatzekoa.

**4. aldaketa:** 2013/12/16: Zestoa eta Aizarnazabalgo udalerriei kontratua luzatzea, hiri izaerako hondakinak gaika biltzeko sistema berria ezarri arte, 2014ko ekitaldian izango delarik.

**5. aldaketa:** 2014/06/16: Zestoa eta Aizarnazabalgo udalek kontratuaren indarraldia amaitutzat ematea eta Azkoitiko udalerrian hondakinak biltzeko sistema aldatzea.

**6. aldaketa:** 2017/05/11: Azkoitiko udalerrian hondakinak biltzeko sistema aldatzea.





**7. aldaketa:** 2017/11/29: Azpeitiko hondakin Organikoa Mankomunitateak zuzenena kudeatzeko.

## AURREKARIAK

I. Urola Erdiko Mankomunitateko Presidenteak, 2024ko otsailaren 29an, eman du Probidentzia, honakoa aginduz:

*LEHENA:* Mankomunitatea osatzen duten herrietan (Azpeitia izan ezik) hiri hondakinak bildu eta garraiatzeko zerbitzu publikoaren kudeatzeko kontratuaren 8. aldaketaren espediente (ibilgailuak ordezkatzeko alokairu bidez) hasieraz onartzea, eta "Urola Erdia Union Temporal de Empresas" den aldi baterako enpresen batasunari bost lan eguneko entzunaldia ematea, espediente hau ikusi eta ondo iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izateko.

*BIGARRENA:* Urola Erdiko Mankomunitateko Ingurumen teknikariari eta Kontu hartzaileari jakinaraztea, bost lan eguneko epea emanaz dagozkion txostenak egin ditzaten.

II. Aitor Ullibarri Urretxu jaunak aurkeztu du 2024ko martxoaren 13an, "Urola Erdia Unión Temporal de Empresas" entitatearen izenean eta ordezkari gisa Urola Erdiko Mankomunitateko erregistro orokorrean (2024/65. zenbakiduna) idazkia, hau zehazki:

**GAIA: KONTRATUAREN ALDAKETA (KAMIOIEN ALOKAIRUA ETA EDUKIONTZIEN GARBIKETA AZPEITIAN)**

*Urola Erdiko Mankomunitatek 2024ko martxoaren 7ko datarekin jasotako idazkiari erantzunez (2024-65 zk.), UTE UROLA ERDIAk adierazten du ados dagoela planteatutako 2024ko prezioarekin:*

Puntu berdea	167.919,20€
Puntu ez-berdea	324.616,60€
Alokairua 2 alboko karga eta atzeko karga	188.400€
Edukiontzia garbitzea Azpeitian	22.234,56€
<b>GUZTIRA (BEZ GABE)</b>	<b>703.170,36€</b>

*UTE UROLA ERDIAk bere txosten teknikoan adierazten duen bezala, alokairuaren prezioan ez dira sartzen ibilgailu horien mantentze-lan zuzentzaileak, Mankomunitateari aparte fakturatu beharko zaizkionak.*

*Era berean, adierazten da alokairukoek ordezkatuko dituzten egungo ibilgailuak (6761GLY, 2819GLC eta 8392GLH) txatar bihurtuko direla, salbu eta Urola Erdiko Mankomunitateak erreserba gisa behar baditu eta titulartasuna bere izenean aldatzea nahi badu.*

*Gaur egun, UTE UROLA ERDIAk alboko kargako ibilgailu bat dauka alokatuta 2023ko abenduaren 23tik. Alboko kargako bigarren ibilgailua eta atzeko kargako ibilgailua Urola Erdiko Mankomunitateak hala adierazten dionean alokatuko ditu. Besterik gabe, har ezazu nire agurrik beroena,*

Adeitasunez,

Aitor Ullibarri Urretxu  
UROLA ERDIA UTE



## ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

### 1. Eskumena

Estatutuen 11. atalak xedatutakoari jarraituz, “*Batzar Nagusiak honako eskumen hauek izango ditu: "m) Obrak, zerbitzuak, hornidurak eta sektore publikoko kontratuen legean araututakoak kontratatzeko eskumena, bai eta jarduera hobeto kudeatzeko kontratu pribatuak egiteko eskumena ere, aplikagarria den araudian ezarritakoaren arabera*”.

Modu berean, kontratua aldatzeko eskumena du Batzar Nagusiak.

### 2. Araubidea

Azaroaren 14ko 3/2011 Legea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duena: Lehen Xedapen Iragankorrak.

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 92., 194.,195., 202., 203. Eta 258. artikulua.

Ekonomia Iraunkorrari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen Zazpigarren Xedapen Iraunkorra.

Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartzen duen Herri Administrazioetako Kontratuei buruzko Legearen Erregelamenduaren 97. atala.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legearen Lehen Xedapen Iragankorren arabera, aplikagarria da Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea, eta *Ekonomia Iraunkorrari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen Zazpigarren Xedapen Iraunkorra aplikatuz, 2/2011 Legeak jasotzen duen kontratuen aldaketei buruzko araubide berria ez da aplikatuko orain proposatzen den kontratuaren aldaketari.*

Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 202, atalak honakoa dio:

*“1. Una vez perfeccionado el contrato, el órgano de contratación solo podrá introducir modificaciones en el mismo por **razones de interés público y para atender a causas imprevistas, justificando debidamente su necesidad en el expediente.** Estas modificaciones **no** podrán **afectar a las condiciones esenciales del contrato.***

*No tendrán la consideración de modificaciones del contrato las ampliaciones de su objeto que no puedan integrarse en el proyecto inicial mediante una corrección del mismo o que consistan en la realización de una prestación susceptible de utilización o aprovechamiento independiente o dirigida a satisfacer finalidades nuevas no contempladas en la documentación preparatoria del contrato, que deberán ser contratadas de forma separada, pudiendo aplicarse, en su caso, el régimen previsto para la contratación de prestaciones complementarias si concurren las circunstancias previstas en los artículos 155 b) y 158 b).*



**2. La posibilidad de que el contrato sea modificado y las condiciones en que podrá producirse la modificación de acuerdo con el apartado anterior deberán recogerse en los pliegos y en el documento contractual.**

3. Las modificaciones del contrato deberán formalizarse conforme a lo dispuesto en el artículo 40.

4. En los casos de fusión de empresas en los que participe la sociedad contratista, continuará el contrato vigente con la entidad absorbente o con la resultante de la fusión, que quedará subrogada en todos los derechos y obligaciones dimanantes del mismo. Igualmente, en los supuestos de escisión, aportación o transmisión de empresas o ramas de actividad de las mismas, continuará el contrato con la entidad resultante o beneficiaria, que quedará subrogada en los derechos y obligaciones dimanantes del mismo, siempre que tenga la solvencia exigida al acordarse la adjudicación”.

#### **IV. Aldaketa gauzatzeko prozedura.**

Aurututa dago Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 194.,195., 202., 203. eta 258. artikuluetan eta urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak onartzen duen Herri Administrazioetako Kontratuei buruzko Legearen Erregelamenduaren 97. eta 102. ataletan. 30/2007 Legearen **195. atalak** xedatzen du:

*“En los procedimientos que se instruyan para la adopción de acuerdos relativos a la interpretación, modificación y resolución del contrato deberá darse audiencia al contratista”*

Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuak, honako bi artikuluetan, prozedura arautzen du:

#### **97. atala:**

*“Con carácter general, salvo lo establecido en la legislación de contratos de las Administraciones públicas para casos específicos, cuantas incidencias surjan entre la Administración y el contratista en la ejecución de un contrato por diferencias en la interpretación de lo convenido o por la necesidad de modificar las condiciones contractuales, se tramitarán mediante expediente contradictorio, que comprenderá preceptivamente las actuaciones siguientes:*

- 1. Propuesta de la Administración o petición del contratista*
- 2. Audiencia del contratista e informe del servicio competente a evacuar en ambos casos en un plazo de cinco días hábiles.*
- 3. Informe, en su caso, de la Asesoría Jurídica y de la Intervención, a evacuar en el mismo plazo anterior.*
- 4. Resolución motivada del órgano que haya celebrado el contrato y subsiguiente notificación al contratista.*

*Salvo que motivos de interés público lo justifiquen o la naturaleza de las incidencias lo requiera, la tramitación de estas últimas no determinará la paralización del contrato”.*



#### **102. atala:**

*“Cuando sea necesario introducir alguna modificación en el contrato, se redactará la oportuna propuesta integrada por los documentos que justifiquen, describan y valoren aquélla. La aprobación por el órgano de contratación requerirá la previa audiencia del contratista y la fiscalización del gasto correspondiente”.*

Kontratuaren prezioa 6.000.000 eurotik baino gorakoa da (7.456.2990,60) baina aldaketa guztien zenbatekoa, banan bana, eta guztiak batera (%3,33), kontratuaren hasierako prezioaren 100eko 10tik gorakoa ez denez, ez zaio eskatu behar Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari txostenarik. (30/2007 Legearen 195.3 b) atalak eta Ekonomia Iraunkorrari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen Zazpigarren Xedapen Iraunkorrak. xedatutakoa eta Aragoiko Kontratazio Aholku-Batzordeak emandako irailaren 12ko 23/2011 txostena “Cuestiones derivadas del nuevo régimen de modificación de los contratos públicos introducido por la Ley 2/2011, de 4 de marzo, de Economía Sostenible” kontuan harturik).

#### **5. Aldaketa egin eta geroko betebeharrak.**

I. Aldaketaren formalizazioaren kopia ziurtatua eta laburpen bat: Kontu Auzitegiari bidaltzea: SPKLren 29. atala

II. Bermearen doiketa gauzatzea: SPKLren 87. atala.

#### **PROPOSATZEN DUT:**

**LEHENA.** Urola Erdiko Mankomunitateko udalerrietako hiri izaerako hondakinak bildu eta garraiatzeko Mankomunitatea eta “Fomento de Construcciones y Contratas S.A.” eta “Serbitzu Elkarte S.L.” baltzuek osaturiko aldi baterako enpresen batasunaren artean indarrean dagoen kontratuaren 8. aldaketa onartzea, 2024ko otsailaren 29ko azterketa tekniko-ekonomikoaren arabera eta Urola Erdia UTEak 2024ko otsailaren 6an aurkeztutako aurrekontuaren arabera.

#### **8. aldaketa honek du xede:**

1. Zaharkitutako ibilgailuak ordezkatzeta alokairuko ibilgailuen bidez

**2. Aldaketa horrek sortuko ditu eraginak 2024ko martxoaren 21etik aurrera.**

**BIGARRENA.-** Kontratuaren urteko prezioa honakoa da, BEZa aparte:

703.170,36€ 2024 urterako, BEZarik gabe; 773.487,39 € (urtero), BEZa barne.

Diru kopuru hori osoa 703.170,36 € ustiapen kostuaren prezioa da.

Kontratuaren hasierako **prezioaren merkatzea %5,69koa** da.

Halere, aldaketa guztien zenbatekoa kontuan hartuta, **kontratuaren hasierako prezioaren garestitzea %4,70ekoa da.**



**HIRUGARRENA.-** Zuzendaritza Batzordeko Lehendakariari ahalmena ematea, kontratuaren aldaketa jasotzen duen dokumentuaren formalizazioa izenpe dezala.

**LAUGARRENA.-** Fidantza doitzea 35.158,52 eurora. Lehen jarri zen bermearen zenbatekoa 34.214,44 eurokoa zen; orain 944,08 euro gehitu behar dituzte fidantzara Urola Erdia UTEak

**BOSGARRENA.** Aldaketaren formalizazioaren kopia ziurtatua eta laburpen bat Kontu Auzitegiari bidaltzea.

**SEIGARRENA.** Kontratugilearen profilean argitaratzea (argitaratzeko gastuak kontratistaren kontura izango dira).

***Erabaki hau berehala exekutiboa da.***

Azpeitia, 2024ko martxoaren 15a.

MANKOMUNITATEAREN PRESIDENTEA

***Joanes Amenabar Altuna***

Gaia bozkatu haurretik, Azkoitia andereak hitza hartzen du, lehenik eskerrak emateko, erabaki hau hartzen delako, zerbitzuak arazo asko dituelako, eta jasangaitza bihurtzen ari zelako, eta nahiz eta diru kopuru garrantzitsua izan, beharrezkoa da. Gaineratzen du, erabaki hau behin behienekoa izan ez dadin espero duela, eta Mankomunitateak erabaki dezala behingoz, aho batez posible bada, behin betikoz jasotze sistemari buruz. Dauden aukerak mahai gainean jarri eta erabaki bat hartzea.

**Gaia bozkatu ondoren, honakoa izan da emaitza:**

**Alde: % 92,52**

Azkoitiko ordezkariak (%35,72): Ana Azkoitia Urteaga A. (% 11,91), Asier Altuna J. (% 11,91) Jose Joakin Etxaniz J. (% 11,90).

Azpeitiko ordezkariak (%46,59): Joanes Amenabar Altuna J. den Lehendakaria (%15,53), Nagore Alkorta Elorza A. (% 15,53), Jabier Altuna Larrañaga J. (% 15,53).

Beizamako ordezkariak (% 0,28): Aitor Arruti Arranz J. (% 0,14), Unai Barrutibengoa Olazabal J. (% 0,14).

Bidania Goiatzeko ordezkariak (%1,08): Juan Ignacio Zinkunegi Urdapilleta J. (%0,54) Josune Landa Gurrutxaga A. (% 0,54).

Errezilgo ordezkariak (%1,16): Luis Maria Arzallus Amenabar J. (% 0,58), Joseba Iñaki Labaka Beristain J. (% 58).

UROLA ERDIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA

Plaza nagusia 11-1 a,2. bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa  
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus



Zestoako ordezkariak (% 7,69): Mikel Arregi Urrutia J. (% 3,85), Zigor Plazaola Anduaga J. (% 3,84).

**Kontra: % 00,00**

**Abstentzioa: % 00,00**

**Bertaratutakoek, aho batez, honakoa onartu dute:**

**LEHENA.** Urola Erdiko Mankomunitateko udalerrietako hiri izaerako hondakinak bildu eta garraiatzeko Mankomunitatea eta "Fomento de Construcciones y Contratas S.A." eta "Serbitzu Elkarte S.L." baltzuek osaturiko aldi baterako enpresen batasunaren artean indarrean dagoen kontratuaren 8. aldaketa onartzea, 2024ko otsailaren 29ko azterketa tekniko-ekonomikoaren arabera eta Urola Erdia UTEak 2024ko otsailaren 6an aurkeztutako aurrekontuaren arabera.

**8. aldaketa honek du xede:**

1. Zaharkitutako ibilgailuak ordezkatzera alokairuko ibilgailuen bidez

**2. Aldaketa horrek sortuko ditu eraginak 2024ko martxoaren 21etik aurrera.**

**BIGARRENA.-** Kontratuaren urteko prezioa honakoa da, BEZa aparte:

703.170,36€ 2024 urterako, BEZarik gabe; 773.487,39 € (urtero), BEZa barne.

Diru kopuru hori osoa 703.170,36 € ustiapen kostuaren prezioa da.

Kontratuaren hasierako **prezioaren merkatzea %5,69koa** da.

Halere, aldaketa guztien zenbatekoa kontuan hartuta, **kontratuaren hasierako prezioaren garestitzea %4,70ekoa** da.

**HIRUGARRENA.-** Zuzendaritza Batzordeko Lehendakariari ahalmena ematea, kontratuaren aldaketa jasotzen duen dokumentuaren formalizazioa izenpe dezala.

**LAUGARRENA.-** Fidantza doitzea 35.158,52 eurora. Lehen jarri zen bermearen zenbatekoa 34.214,44 eurokoa zen; orain 944,08 euro gehitu behar dituzte fidantzara Urola Erdia UTEak

**BOSGARRENA.** Aldaketaren formalizazioaren kopia ziurtatua eta laburpen bat Kontu Auzitegiari bidaltzea.

**SEIGARRENA.** Kontratugilearen profilean argitaratzea (argitaratzeko gastuak kontratistaren kontura izango dira).



## 6. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioan ordezkarien ordezkoak izendatzea.

**Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak egindako proposamena, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Orokorreko ordezkarien ordezkoak izendatzea.**

### AURREKARIAK

I. Urola Erdiko Mankomunitateak du Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Orokorreko kideak hautatzeko betebeharra.

II. Urola Erdiko Mankomunitateko Batzar Nagusiak, bi mila eta hogeitahiruko irailaren hogeitabatean egindako bileran, aho batez, onartu zuen Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Orokorreko hiru kide hauek izendatzea:

- Joanes Amenabar Altuna J.
- Mari Karmen Arregi Agirre
- Asier Altuna Epelde J.

III. Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Estatutuen 12. atalak xedatutakoaren arabera:

**“1. Kontsortzioaren parte diren erakundeen ordezkariak osatzen dute Batzarra. Kide izendatu bakoitzeko ordezko bat hautatuko da, titularraren tokia betetzearren honek bere lekua hutsik lagaz gero. ordezkatzeko hori bakar-bakarrik organo kolegiatuko kideen funtzio generikoetara iritsiko da, ez presidente, presidenteorde edo ordezkatuak izan dezakeen beste inolako funtzio espezifikotara.**

**2. Kontsortzio-erakunde bakoitzak hiru ordezkari eta hauei dagozkien ordezkoak izendatuko ditu, Batzarrean ahalik eta pluraltasunik handiena bermatzearren horrela, eta Kontsortzioari jakinarazi egingo dio izendapen akordioa.** Batzarkidearen ordezkari izendatu ez den kasuetan, beste korporazio-kide bati esku eman dakiok, berariaz, bilkura jakin baterako; eta hori onartu egingo du Batzar nagusiak, baldin eta ordezkari-tza-idatzi izenduna aurkezten badu, kontsortzio-erakundearen idazkariak edo Gipuzkoako foru Aldundiaren Araubide Juridikoko zuzendariak egiaztatuta betiere

### PROPOSAMENA

**LEHENA.-** Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Orokorreko ordezkarien ordezko hauek izendatzea:

- Joanes Amenabar Altuna J., ordezkoa Unai Alberdi Arakistain J.
- Mari Karmen Arrei Agirre, ordezkoa Zigor Plazaola Anduaga J.
- Asier Altuna Epelde J., ordezkoa Luis Maria Arzallus Amenabar J.

**BIGARRENA.-** Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Lehendakariari horren berri ematea.

**UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEKO LEHENDAKARIAK**  
**Joanes Amenabar Altuna**

UROLA ERDIKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA  
Plaza nagusia 11-1 a,2. bulegoa | 20730 Azpeitia | Gipuzkoa  
Tel: 943857319 | ueue@urolaerdia.eus | www.urolaerdia.eus



## **Gaia bozkatu ondoren, honakoa izan da emaitza:**

### **Alde: % 63,68**

Azkoitiko ordezkariak (%23,81): Asier Altuna J. (% 11,91) Jose Joakin Etxaniz J. (% 11,90).

Azpeitiko ordezkariak (%31,06): Joanes Amenabar Altuna J. den Lehendakaria (%15,53), Nagore Alkorta Elorza A. (% 15,53).

Bidania Goiatzeko ordezkariak (%0,54): Juan Ignacio Zinkunegi Urdapilleta J. (%0,54)

Errezilgo ordezkariak (%0,58): Luis Maria Arzallus Amenabar J. (% 0,58).

Zestoako ordezkariak (% 7,69): Mikel Arregi Urrutia J. (% 3,85), Zigor Plazaola Anduaga J. (% 3,84).

### **Kontra: % 28,56**

Azkoitiko ordezkaria (%11,91): Ana Azkoitia Urteaga A. (%11,91).

Azpeitiko ordezkaria (%15,53): Jabier Altuna Larrañaga J. (% 15,53).

Bidania Goiatzeko ordezkaria (%0,54): Josune Landa Gurrutxaga A. (% 0,54).

Errezilgo ordezkaria (%0,58): Joseba Iñaki Labaka Beristain J. (% 58).

### **Abstentzioa: % 00,29**

Beizamako ordezkariak (% 0,28): Aitor Arruti Arranz J. (% 0,14), Unai Barrutibengoa Olazabal J. (% 0,14).

## **Bertaratutakoek, gehiengoz, honakoa onartu dute:**

**LEHENA.-** Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Batzar Orokorrerako ordezkarien ordezeko hauek izendatzea:

- Joanes Amenabar Altuna J., ordezekoa Unai Alberdi Arakistain J.
- Mari Karmen Arrei Agirre, ordezekoa Zigor Plazaola Anduaga J.
- Asier Altuna Epelde J., ordezekoa Luis Maria Arzallus Amenabar J.

**BIGARRENA.-** Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren Lehendakariari horren berri ematea.

## **7. Datuen babeserako politika onartzea.**

**Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariaren proposamena, datuen babeserako politikak onestekoa.**





I. 2016ko apirilaren 27an onartu zen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2016/679 Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuak babesteko Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena. Aipatutako erregelamendua Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeiei egunera sartu zen indarrean eta, 99. Artikuluak dioen moduan, elementu guztiak dira betebeharrekoak eta zuzenean aplikatu beharrekoak Europar Batasuneko kide diren herrialde guztietan, 2018ko maiatzaren 25etik aurrera.

II.- Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2018ko urriaren 22an emandako ebazpenaren bidez, erabaki zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko Foru Kontratazioen Zentralak irekitako datuak babeserako zerbitzuaren espedienteari atxikitzea.

III.- 2019ko urriaren 5eko ebazpenaren bidez, GRUPO S21 SEC GESTIÓN, S.A., I.F.Z. A20686150 enpresari esleitu zitzaion, "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez datu pertsonalen babesaren eta informazioaren segurtasunaren inguruko egokitzapen zerbitzuari dagokion 4 loteari kontratatzeko esparru akordiotik" eratorritako kontratu eratorria

IV.- Toki-erakundeen esparruan, DBEOren 37.1.a artikulua arabera, datuak babesteko ordezkaria (DBO) izendatzea nahitaezkoa da. Hori dela eta, 2020ko urtarrilaren 30eko ebazpenaren bidez, erabakitzen da izendatzea GRUPO S21SEC GESTIÓN, S.A. Urola Erdiko Mankomunitateko datuak babesteko ordezkaria. Honen eginkizuna da, datuak babesteari buruzko jarraibideak ematea eta tratamenduaren arduradunak araudia betetzen duen gainbegiratzea.

Gauzak horrela, aipatutako ordezkarien argibideei jarraituz osatu da "Datuen babeserako politikak" deritzon dokumentua, proposamen honi gehitzen zaiona.

## PROPOSAMENA

**Lehenengoa.-** Urola Erdiko Mankomunitateko "Datuen babeserako politika" dokumentua onartzea (I Eranskina)

**Bigarrena.-** Dokumentu hori mankomunitatearen web orrian bitarteko elektronikoen bidez modu eskuragarrian argitaratzea.

Une bakoitzean web orrian argitaratuta dagoen dokumentua izango da uneoro indarrean dagoena.

Azpeitia, 2024ko martxoaren 15a.

**Joanes Amenabar Altuna**

**Gaia bozkatu ondoren, honakoa izan da emaitza:**

**Alde: % 92,52**

Azkoitiko ordezkariak (%35,72): Ana Azkoitia Urteaga A. (% 11,91), Asier Altuna J. (% 11,91) Jose Joakin Etxaniz J. (% 11,90).



Azpeitiko ordezkariak (%46,59): Joanes Amenabar Altuna J. den Lehendakaria (%15,53), Nagore Alkorta Elorza A. (% 15,53), Jabier Altuna Larrañaga J. (% 15,53).

Beizamako ordezkariak (% 0,28): Aitor Arruti Arranz J. (% 0,14), Unai Barrutibengoa Olazabal J. (% 0,14).

Bidania Goiatzeko ordezkariak (%1,08): Juan Ignacio Zinkunegi Urdapilleta J. (%0,54) Josune Landa Gurrutxaga A. (% 0,54).

Errezilgo ordezkariak (%1,16): Luis Maria Arzallus Amenabar J. (% 0,58), Joseba Iñaki Labaka Beristain J. (% 58).

Zestoako ordezkariak (% 7,69): Mikel Arregi Urrutia J. (% 3,85), Zigor Plazaola Anduaga J. (% 3,84).

**Kontra: % 00,00**

**Abstentzioa: % 00,00**

**Bertaratutakoek, aho batez, honakoa onartu dute:**

**Lehenengoa.-** Urola Erdiko Mankomunitateko “Datuen babeserako politika” dokumentua onartzea (I Eranskina)

**Bigarrena.-** Dokumentu hori mankomunitatearen web orrian bitarteko elektronikoen bidez modu eskuragarrian argitaratzea.

Une bakoitzean web orrian argitaratuta dagoen dokumentua izango da uneoro indarrean dagoena.

## **8. Datuen babeserako araudi orokorra onestea**

**Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariaren proposamena, Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra betetzeko araudi orokorra onestekoa.**

I. 2016ko apirilaren 27an onartu zen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (EB) 2016/679 Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen eta 95/46/EE Zuzentaraua (Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra) indargabetzen duena. Aipatutako erregelamendua Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeiei egunera sartu zen indarrean eta, 99. Artikuluak dioen moduan, elementu guztiak dira betebeharrekoak eta zuzenean aplikatu beharrekoak Europar Batasuneko kide diren herrialde guztietan, 2018ko maiatzaren 25etik aurrera.



II.- Urola Erdiko Mankomunitateko Lehendakariak, 2018ko urriaren 22an emandako ebazpenaren bidez, erabaki zuen Gipuzkoako Foru Aldundiko Foru Kontratazioen Zentralak irekitako datuak babeserako zerbitzuaren espedienteari atxikitzea.

III.- 2019ko urriaren 5eko ebazpenaren bidez, GRUPO S21 SEC GESTIÓN, S.A., I.F.Z. A20686150 enpresari esleitu zitzaion, "Foru Kontratazioen Zentralaren bitartez datu pertsonalen babesaren eta informazioaren segurtasunaren inguruko egokitzapen zerbitzuari dagokion 4 loteari kontratatzeko esparru akordiotik" eratorritako kontratu eratorria

IV.- Toki-erakundearen esparruan, DBEOren 37.1.a artikulua arabera, datuak babesteko ordezkaria (DBO) izendatzea nahitaezkoa da. Hori dela eta, 2020ko urtarrilaren 30eko ebazpenaren bidez, erabakitzen da izendatzea GRUPO S21SEC GESTIÓN, S.A. Urola Erdiko Mankomunitateko datuak babesteko ordezkaria. Honen eginkizuna da, datuak babesteari buruzko jarraibideak ematea eta tratamenduaren arduradunak araudia betetzen duen gainbegiratzea.

Gauzak horrela, aipatutako ordezkarien argibideei jarraituz osatu da "Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra betetzeko araudi orokorra" deritzon dokumentua, proposamen honi gehitzen zaiona.

## PROPOSAMENA

**Lehenengoa.-** Urola Erdiko Mankomunitateko "Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra betetzeko araudi orokorra" dokumentua onartzea (I Eranskina)

**Bigarrena.-** Dokumentu hori mankomunitatearen web orrian bitarteko elektronikoen bidez modu eskuragarrian argitaratzea.

Une bakoitzean web orrian argitaratuta dagoen dokumentua izango da uneoro indarrean dagoena.

Azpeitia, 2024ko martxoaren 15a.

**Joanes Amenabar Altuna**

**Gaia bozkatu ondoren, honakoa izan da emaitza:**

**Alde: % 92,52**

Azkoitiko ordezkariak (%35,72): Ana Azkoitia Urteaga A. (% 11,91), Asier Altuna J. (% 11,91) Jose Joakin Etxaniz J. (% 11,90).

Azpeitiko ordezkariak (%46,59): Joanes Amenabar Altuna J. den Lehendakaria (%15,53), Nagore Alkorta Elorza A. (% 15,53), Jabier Altuna Larrañaga J. (% 15,53).

Beizamako ordezkariak (% 0,28): Aitor Arruti Arranz J. (% 0,14), Unai Barrutibengoa Olazabal J. (% 0,14).



Bidania Goiatzeko ordezkariak (%1,08): Juan Ignacio Zinkunegi Urdapilleta J. (%0,54) Josune Landa Gurrutxaga A. (% 0,54).

Errezilgo ordezkariak (%1,16): Luis Maria Arzallus Amenabar J. (% 0,58), Joseba Iñaki Labaka Beristain J. (% 58).

Zestoako ordezkariak (% 7,69): Mikel Arregi Urrutia J. (% 3,85), Zigor Plazaola Anduaga J. (% 3,84).

**Kontra: % 00,00**

**Abstentzioa: % 00,00**

**Bertaratutakoek, aho batez, honakoa onartu dute:**

**Lehenengoa.-** Urola Erdiko Mankomunitateko “Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra betetzeko araudi orokorra” dokumentua onartzea (I Eranskina)

**Bigarrena.-** Dokumentu hori mankomunitatearen web orrian bitarteko elektronikoen bidez modu eskuragarrian argitaratzea.

Une bakoitzean web orrian argitaratuta dagoen dokumentua izango da uneoro indarrean dagoena.

## **9. Berankortasun txostena 2023/4 berri ematea.**

Lehendakariak, 2023 urteko laugarren hiruhilekoari dagozkion fakturak ordaintzeko epeei buruzko informazioaren berri ematen du, Kontuhartzaitzak egindako txostenaren arabera.

## **10. Berankortasunaren aurkako neurriak betetzeari buruzko txostenaren berri ematea.**

Lehendakariak, Faktura elektronikoa bultzatzeko eta sektore publikoan fakturen kontularitza-erregistroa sortzeko abenduaren 27ko 25/2013 legearen 12.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz, berankortasunaren aurkako neurriak betetzeari buruzko txostenaren berri ematen du.

## **11. Kontu-hartzaileak, kontratuei jarritako eragozpenen, eta hauek ezabatzen dituzten ebazpenen berri ematea.**

Lehendakariak, Kontu-hartzaileak, kontratuei jarritako eragozpenen, eta hauek ezabatzen dituzten ebazpenen berri ematen du.



## **12. Ebazpenen berri ematea.**

Lehendakariak, 2023/192tik, 2024/42 arteko zenbakidun ebazpenen berri ematen du.

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez, Urola Erdiko Mankomunitatearen Lehendakariak amaiera eman dio Batzar Nagusiari arratsaldeko 18:30ean. Eta horren guztiaren fede ematen dut idazkari kontu-hartzailea naizen honek.

**ONTZAT EMANA**  
**UROLA ERDIKO MANKOMUNITATEAREN**  
**LEHENDAKARIAK**

**IDAZKARI**  
**KONTU-HARTZAILEAK**

Joanes Amenabar Altuna

Ander Cestona Unanue